



## **Iratzarriren iritziz, “bada ordua euskal gazteriak ekimen politikoa har dezan”**

**Aralarren gazteek Hegoaldeko koordinakundearen hileko asanblada egin berri du Gasteizen. Oraingoan, gazteen artean “euskal auziek” duen eraginaz aritu dira eta Iratzarrik adierazi du “argi eta garbi ikusi da etxebizitza eskuratzea eskubide barik pribilejioa izaten jarraitzen duela eta gazteok erakutsi behar dugula, mobilizazio aktiboaren bitartez, ez dugula egoera hori gehiago onartzen eta ezin garela aldarrikapenik egin barik geratu. Izan ere, EAEko eta Nafarroako gazteok lan baldintza geroz eta lazgarriagoi aurre egin behar dizkiogula”.**

Nafarroa Oinez en aitzakira, Iratzarriko gazteek diote “eskubide linguistikoaren bortxa eta euskararekiko konpromiso falta, zoritxarrez, Euskal Herriko leku askotan errealitate tristea izaten jarraitzen du, milaka gazteok gure hizkuntzan jarduteko eta ikasteko eskubidea murriztua ikusten dugu”

Indarkeriaren kontra

Iratzarrik beste behin ere eskatu dio ETari utz diezaiola euskal gizartean armen bidezko esku-hartzea izateari. Era berean “estatuko segurtasun indarrek egindako atxiloketak salatu” dituzte “gazteriaren gehiengoak elkarriketa bidezko konponketa eskatzen” baitu. Zentzu horretan Iratzarrik “Aralarren koordinatzaile nagusi Patxi Zabaletari babes beroa adierazi nahi dio”, Zutabean egiten dioten aipamenaren haritik, eta “elkartasuna adierazi 18/98+ makrosumarioan auziperatuei”.

Espainiako nazionalismoak blokeo egoerara eta desadostasunera eraman nahi du Euskal Herria eta horrela erakutsi dute urriaren 12an hainbat faxistek. Iratzarrik gogoratu nahi izan du Donostian gertatutako istiluen aurretik Faxisten kontrako jaialdi bateratua ospatu zela “eta horixe izan behar zen egun horretako ekitaldi legal bakarra” horregatik salatu du “EAE Auzitegi Gorenak faxistei eman zien baimena Euskal Herriko kaleetan libreki jarduteko eskuin muturreko elkarteak izanik”.

Iratzarriren ustez, “gazteok ekimen politikoa hartzeko garaia da” eta “aipatutako arazo horietako bakoitzak soluzioa baduenez, Aralarren gazteok horrek konpontzeko lanean jarduteko konpromisoa adierazten dugu”.

Horregatik guztiagatik, azaroan Iratzarriko Gazte Topaketa egingo du Gasteizen: ezker gazte independente zibil eta anitzaren proposamenak aterako

dira jardunalditik “eredu sozial eta nazional berri baten aldeko apustua egitea beharrezkoa dela aldarrikatzeko”.